

UDALAREN OSOKO BILKURA

Bilkurako akta

Ohiko bilkura

Eguna: 2017ko uztailaren 12a, asteazkena.

2017ko irailaren 13an akta onesteko bilkuran egindako oharrak biltzen ditu.

Oyón-Oiongo udaletxeko bilkuren aretoan, adierazitako eguneko 20:00etan, Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV) alkate udalburu jauna buru dutela, honako zinegotzi jaun-andre hauek bildu dira Udaltzaren osoko bilkura egiteko: Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Bilkura eratu den unean bertan ez zeuden zinegotziak: Agustín Hervías Salinas (PP), bertaratu ezina adierazi du; Diana Rubio Lafuente (PP); Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), bertaratu ezina adierazi du, eta Manuel Gamarra López-Brea (PSE-EE-PSOE).

Alfredo S. Sastre de A. idazkari titularra da bilkurako idazkari.

Alkate-udalburu jaunak deitu du bilkura, alde zuzen eta arazko publikitatearekin. Honako hau da

Aztergaien zerrenda

1. Onestea 2017ko ekainaren 14an eginiko ohiko bilkuraren akta.
2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.
3. **Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.**
4. **Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.**
5. **Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.**
 - 5.1. LGTBI pertsonen nazioarteko eguneko erakunde-adierazpena.
6. **Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.**
 - 6.1. Araudiak egiteko prozedura eta beste xedapen batzuk. Udal-aretoen erabilera arautzen duen ordenantza.
 - 6.2. 2017ko lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena eta obra eta zerbitzuen arduradunaren lanpostuaren funtzioak.
Azken puntua) Eskaerak eta galderak.

Bilkuraren izaerarekin eta eguneko aztergaien zerrendarekin bat etorritik, eta gaiak jorratu eta bozkatu ostean, honako erabaki hauek hartu dira:

1. Onestea 2017ko ekainaren 14an eginiko ohiko bilkuraren akta.

Alkate-udalburu jaunak aktari oharririk egin nahi dioten galdetu die zinegotzi jaun-andreei. Ez da oharririk egin.

Hau erabaki da:

- 1) Onestea 2017ko ekainaren 14an eginiko ohiko bilkuraren akta, igorritako zirriborroaren arabera,

Aldeko botoak: 6 (sei); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel

Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

2. Alkatetzaren dekretuak eta ebazpenak.

Idazkari jaunak, alkate-udalburu jaunak hala eskatuta, Alkatetzaren dekretu eta ebazpenen berri eman du, zehazki aurreko ohiko bilkuratek aurrera emandakoenak: 2017ko 136/17tik 167/17ra bitartekoak.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

3. Kultura, Turismoa, Jaiak, Obrak eta Zerbitzuak, eta Nekazaritza Batzordea.

4. Gazteria, Hezkuntza eta Kirolak Batzordea.

5. Gizarte Ongizatea, Euskara eta Osasuna Batzordea.

5.1. LGTBI pertsonen nazioarteko eguneko erakunde-adierazpena.

Alkate jaunak LGTBI pertsonen nazioarteko eguneko erakunde-adierazpena irakurri du.

Adierazpena EAJ-PNV eta Eh Bildu Oionek adostu dute, eta hau dio, hitzez hitz:

"Los disturbios del 28 de junio de 1969 en Stonewall (Nueva York) marcaron un antes y un después en el movimiento LGTBI. Hoy, pese a que la conciencia social cada vez es mayor, los datos confirman que en la punta del iceberg de los discursos de odio se encuentra la discriminación por orientación e identidad sexual y/o expresión de género. En este marco, un año más, gran parte de la sociedad nos unimos para ver de manera conjunta el mundo y de él se desprende un sabor agrí dulce del que es difícil prescindir.

Es innegable que tras años de lucha, el colectivo LGTBI es más visible, cada vez hay más armarios rotos y lo que es más importante, cada vez se construyen menos.

Hoy las niñas y los niños están más cerca de poder vivir (se) como son, los esquemas de género siguen presionando, pero la sensación de ahogo es cada vez menor. Además de oír también escuchamos lo que estas niñas y estos niños nos dicen y lo hacen públicamente y en primera persona.

Jóvenes lesbianas, gais, transexuales, bisexuales... deciden vivir su sexualidad en libertad, se movilizan y disfrutan con orgullo y sin drama. Incluso por primera vez un hombre (marido del primer ministro de Luxemburgo) posa junto a las primeras damas en una cumbre europea y la foto se hace viral.

Y es que sabemos que las siglas LGTBI no son suficientes para englobar a las diferentes orientaciones e identidades sexuales y/o expresiones de género de todas las personas, pero tampoco queremos seguir añadiendo letras a un colectivo que necesite ser reivindicado, sino que queremos que estas siglas abarquen todo el abanico de diversidad sexual y de género en el que nadie quede fuera. Ojalá algún día esta diversidad sea asumida como tal y todas las personas formen parte de ella.

Lamentablemente también tenemos que hablar la discriminación que sufre este colectivo como por ejemplo en Chechenia donde existen campos de concentración en los cuales realizan “operaciones de limpieza preventiva”, o de cómo todavía en once países ser LGTBI está castigado con pena de muerte y en decenas de ellos con prisión que puede ser hasta cadena perpetua, o incluso, cómo en muchos estados se imponen multas, trabajos forzados o deportaciones. También tenemos ejemplos más cercanos y recientes donde la visibilización del lesbianismo ha tenido como respuesta la expulsión de una cafetería o la agresión que sufrieron una pareja de chicas. Del mismo modo, queremos recordar la violencia que se está ejerciendo en varios puntos del estado contra los hombres y mujeres transexuales, especialmente contra estas últimas.

Además, tenemos que seguir lamentando el hecho de que, a día de hoy la transexualidad siga estando catalogada dentro de los manuales de trastornos psiquiátricos tanto por la OMS como por la AMPA (American Psychiatric Association) sin que exista ningún razonamiento científico para que esto sea así, hecho que problematiza enormemente la vida de los hombres y mujeres transexuales.

Y todo esto no es algo que atañe únicamente al colectivo LGTBI, sino que afecta al conjunto de la sociedad vasca. Efectivamente, la violencia se ejerce contra el colectivo, pero todas las personas sufrimos las consecuencias de vivir en un mundo en el que esto sucede.

En este contexto, el 28 de junio cobra todavía mayor importancia y desde el servicio público Berdindu, Servicio de Información y Asistencia al colectivo LGTBI del Gobierno Vasco, seguimos con la mirada puesta en los discursos de odio y las violaciones de los derechos humanos y animamos a la sociedad a que ante estas situaciones, actúe y denuncie con la voz bien alta. Si echamos la mirada atrás somos conscientes de que la aceptación social de la diversidad sexual y de género es cada vez mayor gracias, en parte, a la labor que toda la sociedad vasca ha realizado para construir una comunidad más justa e igualitaria.

Porque en la actualidad hay cosas por las que luchar, porque los las – homo-trans-bi-fobia se ha fortalecido en diversos ámbitos ideológicos y también en parte de la sociedad. Y porque aún están por dar los pasos mediante los cuales puedan gozar de los mismos derechos que el resto de la ciudadanía (accesos a los sistemas reproductivos, oportunidades en el sistema educativo, o para la consecución de un empleo digno) por ejemplo.

En este 28 de junio tenemos claro que la lucha continua, que hay razones de sobra para seguir reclamando los derechos ciudadanos de lesbianas, homosexuales, transexuales, y bisexuales, en nuestro pueblo y en nuestras calles, en los centros educativos, en la familia y con nuestras amistades, en los centros de trabajo, en la publicidad y en el ocio.

Entendiendo que la lucha por la diversidad afectivo-sexual es de todas y todos nosotros, este ayuntamiento se reafirma en el compromiso de actuar contra las diferentes expresiones de LGTBI+fobia de la mano de los y las vecinas del municipio.

Para finalizar instamos a gobierno vasco a revisar la ley de personas transexuales para su mejora y seguir colaborando desde el servicio público Berdindu con los colectivos LGTBI+”.

Euskarazko testua txertatu da:
"Ekainaren 28ko manifestua

1969ko ekainaren 28an Stonewallen (New York) izandako istiluek inflexio-puntu bat markatu zuen LGTBI kolektiboarentzat. Gaur, nahiz eta gizarte-kontzientzia gero eta handiagoa den, datuek berresten dute gorroto-diskurtsoen icebergaren tontorrean sexu-orientazioaren eta identitatearen, edota genero-adierazpenaren ondorioz diskriminazioa dagoela. Esparru honetan, beste urte batez, gizartearen zati handi batek bat egiten dugu mundua elkarrekin ikusi nahian, eta hortik eratoritzen da alde batera uzten zaila den zapore gazi-geza.

Ukaezina da borrokan urteak eman eta gero LGTBI kolektiboa gero eta ikusgaiagoa dela. Gero eta armairu apurtu gehiago daude, eta, are inportanteagoa dena, gero eta armairu gutxiago egiten dira.

Gaur, neskek eta mutilak diren moduan (elkarrekin) bizitzetik hurbilago daude, genero-eskemek estutzen jarraitzen dute, baina itotzearen sentsazioa gero eta txikiagoa da jada. Entzuteaz gain, neska eta mutil hauei aditzen diegu: beren kabuz dihardute publikoki.

Lesbiana gazteek, gay-ek, trans pertsonak, bisexualek... erabaki dute beren sexualitatea askatasunean bizitzea: mobilizatu egiten dira eta harrotasunez gozatzen dute, drama barik. Lehendabiziko aldiz gizon batek (Luxenburgoko lehen ministroaren senarra) posatu du lehen damekin batera Europako goi-bilera batean, eta horren argazkia biral bihurtu da.

Jakin badakigu LGTBI siglak ez direla nahikoak pertsona guztion sexu-orientazioak eta identitateak edota genero-adierazpenak barneratzeko, baina ez dugu jarraitu nahi aldarrikatua izan behar duen kolektibo bati siglak gehitzen: sigla hauek sexu- eta genero-aniztasunaren esparru osoa hartu behar dute barne, inor kanpoan gera ez dadin. Egunen batean aniztasun hori hala hartu beharko litzateke aintzat, pertsona guztiak bertan izan daitezten.

Zoritxarrez, kolektibo honek pairatzen duen diskriminazioaz ere hitz egin behar dugu; adibidez, Txetxenian, non kontzentrazio-esparruetan “garbiketa prebentiborako lanak” gauzatzen baitira; bestalde, aipatu behar da hamaika herrialdetan LGTBI izatea heriotzarekin zigortzen dela, eta beste hainbatetan kartzelarekin (biziarteko kartzela-zigorra, isunak, lan nekagarriak eta deportazioak). Gertuago eta egungoago ditugu bestelako gertaerak (lesbianismoa ikusgai egiteak ekarri zuen kafetegi batetik kanporatzea, edo neska pare batek jasandako erasoak). Halaber, gogoratu nahi dugu Estatuko hainbat tokitan trans gizon eta emakumeen aurka gertatzen den indarkeria, batez ere azken horien aurkakoa.

Gainera, deitoratu egiten dugu oraindik OME (Osasunaren Mundu Erakundea) eta AMPA (American Psychiatric Association) erakundeen psikiatria-arazoaren gidaliburuetan transexualitatea agertzea, nahiz eta horretarako zientzia-arrazoiketarik ez egon, horrek trans gizon eta emakumeen bizitza erruz oztopatzen duelako.

Hori guztia ez da bakarrik LGTBI kolektiboari dagokion zerbait, euskal gizarte osoari dagokion zerbait baizik. Hain zuzen ere, kolektiboa bera da erasoak pairatzen dituen, baina pertsona guztiok pairatzen ditugu halako munduan bizitzearen ondorioak.

Testuinguru honetan, ekainaren 28koa are inportanteagoa da, eta Berdinu Zerbitzu Publikoak (Eusko Jaurlaritzako LGTBI kolektiborako informaziorako eta arretarako Zerbitzua) hurretik jarraitzen ditu gorroto-delituen eta giza eskubideen urraketa, eta gizartea animatzen dugu halako egoerak ozenki salatzeri. Atzera begiratzen badugu, ikusi egingo dugu sexu- eta genero-aniztasuna gero eta gehiago onartzen direla, eta hori, neurri batean, euskal gizarteak komunitate solidarioagoa eta bidezkoagoa egiteko ahaleginaren ondorioa da.

Gaur egun egon badaudelako borrokatzeko arrazoiak, hainbat esparru ideologikotan eta gizartearen parte batean homo-trans-bi-fobia indartu delako, eta oraindik gizartean dauden eskubide guztiez gozatu ahal izateko pausuak eman behar direlako (besteak beste, ugalketarako sistemetara sarbidea, hezkuntza sistemako aukerak eta duintasuneko lana eskuratzea).

Ekainaren 28 honetan argi dugu borrokatu beharra dagoela, nahikoa eta gehiegi arrazoi daudela lesbianen, homosexualen, transexualen eta bisexualen eskubideak eskatzen jarraitzeko gure herrian eta gure kaleetan, gure ikastetxeetan, familian eta lagunartean, lantokietan, publizitatean eta aisialdian.

Ulertzen dugu aniztasun afektibo-sexuala guztiona dela; horregatik, udal honek konpromisoa berresten du LGTBI+fobia adierazpen guztiei aurre egingo diela udalerriko biztanle guztien laguntzaz.

Amaitzeko, Eusko Jaurlaritzari eskatzen diogu pertsona transexualei buruzko Legea aztertu dezan, hura hobetzeko eta LGTBI+ kolektiboekin lan egiten jarraitzeko Berdinu zerbitzu publikoaren bitartez".

Adierazpena EAJ-PNV, PP eta Eh Bildu Oion taldeetako ordezkariak sinatu dute.

6. Ekonomia, Ogasuna eta Enplegua, eta Hirigintza Batzordea.

6.1. Araudiak egiteko prozedura eta beste xedapen batzuk. Udal-aretoen erabilera arautzen duen ordenantza.

Alkate jaunak eskatuta, idazkari jaunak hau azaldu du: Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkideari buruzko Legearen (urriaren 1eko 39/2015) 133. artikulua ezartzen duenaren arabera, erregelamenduaren proiektua prestatu baino lehen, kontsulta publiko bat bideratuko da administrazio eskudunen web atariaren bitartez, eta jasoko da zer iritzi duten etorkizuneko arauaren eraginpean gerta litezkeen subjektuek eta erakunde ordezkagarriek puntu hauei buruz: Araudiaren bidez konpondu nahi diren arazoak. Hainbat erabiltzailek aretoak une berean nahi izateak eragin ditzakeen gatazkak.

Arau hori onestea beharrezkoa eta egokia den: uste da beharrezkoa eta egokia dela aretoen erabilera arautzeko araudi bat onestea, asko erabiltzen baitira.

Araudiaren helburua da bizikidetzak baketsua ahalbidetzea eta ahalik eta kolektibo gehienek aretoak erabili ahal izatea.

Izan litezkeen bestelako aukera erregulatuak eta ez-erregulatuak: Ez da uste posible denik araudirik gabeko konponbiderik aurkitzerik kolektiboek, elkarteek, partikularrek eta abarrek aretoak parteka ditzaten.

Iragarkia Udalaren webgunean argitaratuko da, eragina jasango duten herritarrek horren berri izan dezaten, eta beste pertsona zein erakunde batzuekin egin ditzaketen ekarpen gehigarri guztiak jasoko dira.

Araudi-proposamenak ez du eragin nabarmenik jarduera ekonomikoan eta ez da aurreikusten hartzaileei nabarmentzeko moduko betebeharririk ekarriko dienik; hala ere, uste da egokiena dela kontsulta publikoa isilean ez gordetzea.

“Bazterra” aretoa Oyón-Oioneko Udalaren jabetzako Hirugarren Adinekoentzako Etxearen eraikin sortan integratuta dagoen lokal bat da, eta instalazioen erabilera Oioneko Santa Maria Hirugarren Adinekoen Elkartearen esku utzi du, elkartearen xedeetarako.

Horrez gain, udalerriko gainerako herritar eta kolektiboek ere erabil dezakete “Bazterra” aretoa, adierazitako arauak betez gero. Hirugarren Adinekoen Elkarteak du lehentasuna lokal hori erabiltzeko.

Hauek dira ordenantza berriarekin arau daitezkeen gainerako areto eta lokalak: udal-zinema, Fuegos eraikineko aretoak, udaletxe zaharreko aretoak eta Arroyo I pilotalekua (kirolarekin lotuta ez dauden erabileretarako).

Irakokizunak aurkezteko azken eguna 2017ko abuztuaren 18a, ostirala, da.

Espedientearen erreferentzia-zenbakia: Idaz/OrdUsosSalas1707.

Bertaratuak jakinaren gainean gelditu dira.

6.2.2017ko lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena eta obra eta zerbitzuen arduradunaren lanpostuaren funtzioak.

Alkate jauna: Aztergaien zerrendako 6.2 puntua kentzeko proposatzen dugu, IVAPi eskatutako espedientea jasotzen dugun arte; izan ere, oraindik ez dugu. Baliteke ezohiko bilkura bat egin behar izatea. Javier Azáratek urriaren 3an utziko du postua, eta ordurako lanpostuen zerrenda egokituta egon behar da, arduradunaren lanpostua eta, hala behar izanez gero, atezainaren postua, bete ahal izateko.

Villanueva jauna: Akordio bat erdietsiko ez badugu ere, baliteke egokia izate gure ikuspuntuak adieraztea. Koordinatzaile jaunak 3.300 euro gordin inguru jasotzen ditu aguazil bati dagozkion funtzioak betetzeagatik. Ordenantzei, bandoei eta bestelako udal-xedapen eta -egintzei dagokienez administrazio-polizia lanak egitea, obrak kontrolatzea eta haiei buruzko informazioa ematea, jakinarazpenak egitea, iragarki-taulen mantentze-lanak egitea, ekitaldietan laguntzea, Udalaren jabetzako eta erabilera publikoko ondasunen, zerbitzuen eta instalazioen egoera kontrolatzea, asteko merkatua kontrolatzea. Funtzio horiek aguazil batenak dira. Guk lanaldi erdiko aguazil-lanpostu bat sortzea eta lantaldeko langileburu-lanpostua mantentzea proposatzen dugu, langileburua funtzio batzuetatik libratzea beharrezkoa delako eta une honetan nahastuta dauden bi lanpostuak argi bereizi behar direlako: aguazila eta langileburua. Aurreko alkateak proposatutako zereginen kontzentrazioa dela-eta, koordinatzaile jaunari hilean 900 eurotik gorako osagarria ordaintzen zaio; bere garaian hori gehiegizkoa zela iruditu zitzaigun, eta egun, iritzi berekoak gara. Gure proposamenaren bitartez, herriak berriz ere aguazila izango luke, orain ez baitu halakorik.

Eslava Guillerna (EAJ-PNV) andrea iritsi da.

Alkate jauna: Arduradun-lanpostuak koordinatzaile-lanpostuak baino funtzio gutxiago ditu, badakigulako une honetan Ruiz Sarabia jaunak ezin dituela erretiroa hartzen duen pertsonak betetzen dituen funtzio guztiak bete. Ruiz Sarabia jauna ados dago obra eta zerbitzuen arduradun-lanpostuari dagozkion ordainsari eta funtzioekin.

Villanueva jauna: Nork egingo ditu obra eta zerbitzuen arduradunaren esku gelditzen ez diren koordinatzailearen zereginak?

Alkate jauna: alkateak egingo ditu, liberatuta baitago, edo Obrak Saileko zinegotziak, modu altruistan...

Campos jauna: Ez dakit zergatik erabaki zuen aurreko alkateak soldata hilean 900 euro igotzea. Villanueva jaunaren azalpenak argiak eta ulerterrazak izan direla iruditu zait. Edonola ere, ez dut aurkeztu den proposamenaren aurkako eragozpenik.

Alkate jauna: Berriz esango dut Ruiz Sarabia jauna ados dagoela eskaini zitzaion ordainsiarekin eta obra eta zerbitzuen arduradun-lanpostuari dagozkion funtzioekin. Eta uste dut argi dagoela une honetan ez dituela erretiroa hartuko duen pertsonaren konpetentzia berdinak.

Villanueva jauna: Ez dut zalantzan jartzen egungo atezainaren gaitasuna; are gehiago, uste dut Azkarate jauna bezalako asko egon daitezkeela, nahiz eta hemen jainko edo erregeordetzat jo.

Alkate jauna: Ohar hori soberan dago. Koordinatzaile-lanpostuari esleitutako funtzioetara mugatu naiz.

Aurrekariak:

- 1) Alkatearen proposamena, aztergaien zerrendako 6.2 puntua kentzearena, espedienteari IVAPi eskatutako txostena erantsi ahal izateko.
- 2) Tokiko Erakundeen Antolakuntzari, Funtzionamenduari eta Araubide Juridikoari buruzko Erregelamendua onesten duen azaroaren 28ko 2568/1986 Errege Dekretuaren 92. artikulua aplikatu behar da.

Hau erabaki da:

1. Aztergaien zerrendatik 6.2 puntua kentzea (2017ko lanpostuen zerrenda aldatzeko proposamena eta obra eta zerbitzuen arduradunaren lanpostuaren funtzioak), IVAPi eskatutako txostena espedienteari erantsi ahal izateko.

Aldeko botoak: 7 (zazpi); Eduardo Terroba Cabezón (EAJ-PNV), Conchi Villanueva Gutiérrez (EAJPNV), Idoia Eslava Guillerna (EAJ-PNV), José Antonio Tarragona Elejalde (EAJ-PNV), Luis Felipe Campos Latre (PP), José Manuel Villanueva Gutiérrez (EhBildu Oion) eta Elizmendi Martínez de San Vicente Apiñániz (EhBildu Oion).

Azken puntua) Eskaerak eta galderak.

Villanueva jaunak zuntz optikoa luzatzeko lanei buruz galdetu du.

Alkate jauna: Dirudienez, lanak gelditu egin dira, bi ibilbidetako kableak elkartu behar direlako eta errepideen baimenaren zain daudelako.

Campos jauna: Jakin dugu Basilio Ruiz Esquide hil egin dela. Pertsona berezia zen, eta baliteke ideia ona izatea jaietan omenaldi bat egitea...

Alkate jauna: Basiliorekiko nituen sentimenduak agerikoak dira. Legealdi honetan, kargu publiko bati buruzko aipamena baino ez da egin, Barriobustoko batzarburuari egindakoa, hain zuzen ere.

Kasu honetan, apaizari aipamena egiteko eskatu nionean, esan zidan liturgia, liturgia dela, eta hori Esker On Eguneko meza bat zela...

Tarragona jauna: Horrelako gauzetarako, familiaren iritzia jakitea komeni da...

Jorrazeko gai gehiagorik ez dagoenez, udalburu jaunak amaitutzat eman du bilkura 21:22an (bilkura 20:00etan hasi da), eta nik, idazkariak, guztiaren fede ematen dut.

Oionen, 2017ko uztailaren 20an.

Udaleko idazkaria:

Presidenteak OE: